

# Hemingwayren festa, bueltan

Ernest Hemingwayren 'Fiesta. Eguzkia jaikitzen da' eleberri ezaguna ekarri du euskarara Koro Navarrok, Literatura Unibertsala bildumaren barruan • Anjel Lertxundik jantzi du, hitzurre batekin

## Itziar Ugarte Irizar

Lehen geltokia, Paris. Han elkar-tuko dira Jake Barnes Lehen Mundu Gerrak zauritutako kazetaria –narratzailea– eta Brett Ashley, erizaina eta Barnesekin maite joaketan aritutakoa. Beste estatubatuar batzuekin elkartu, eta boskotean eta festa gogoari tiraka helduko dira azken geltokira: Iruñeko sanferminetara. Jai giroak blaituko du dena, baina maitasun gatazkak ere azaleratuko dira zalapartaren erdian. Tramaren ardatzean hori, eta inguruko bizipenak, kazetariaren eskuz jasoak. Horiek, besteren artean, Ernest Hemingway estatubatuarren (Oak Park, Illinois, 1899 – Ketchum, Idaho, 1961) 1926ko lan autopatuaren gakoak. Koro Navaroren itzulpenean, euskarara heldu berri da *Fiesta. Eguzkia jaikitzen da*, Hemingway XX. mendeko idazle handienetako bat bihurtu zuen lana. Igelak eta Ereinek plazaratu dute, Literatura Unibertsala bildumaren barruan, eta Anjel Lertxundik egin du hitzaurrea.

Literatura Unibertsala bildumak euskal itzulpenaren alorrean bete duen lekuaz gogoeta plazaratu nahi izan du Navarrok, liburua xehatzen hasi aurretik. Bilduma martxan jarri zenean, 1990ean, literatura itzulia euskal letretan bigarren mailakotzat hartzen zela oroitu du, eta, aldatarik izan bada, proiektuak zerikusi zuzena izan duela esan du: «Itzulpena bazterreko gauzatat hartzen zen; mespretxu ikusten zen. Orain gauzak aldatzen ari dira, jendea hasi da literatura itzulia bere horretan estimatzen; hein handi batean, bilduma honi esker».

Liburura etorrita, berriz, haren estilo «moderno» azpimarratu du itzultzaileak, gaur arteko «ospea» ekarri dion forma. «Egun zaila egiten zaigu garai hartan jartzea. Jatorrizkoaren azala ikusita [erakutsi egin du aurkezpenean] barregarria edo harrigarria egiten zaigu, zaharkitua zaigun modernismo bat, baina kutsu hori gordetzen duela uste dut: liburu moderno batena». Igelak 1998an argitaratutako *Francis Macomber eta beste zenbait ipuin*-en dato-



Aitziber Atorrasagasti, Koro Navarro —itzulpenaren egilea—, Anjel Lertxundi eta Itziar Diez de Ultzurrun, atzo, Donostiako Konstituzio plazan. GORKA RUBIO / FOKU

rren istorio batekin antzemanda-ko lotura ere aipatu du; hango narrazioetako batean «maitasun hiruki bat» ageri bada, *Fiesta. Eguzkia jaikitzen da*-n «maitasun pentagono bat» agertzen dela azalduta.

Iruñea nobelako kokapen zentralerako bat izan arren, Donostia ere «ekintza nagusiaren kontrapuntu gisa» ageri dela gogoratu du itzultzaileak, baita euskaldunak Hemingwayrentzat «base-ritarrak» direla ere, «eta ez hirian daudenak». Emakumezko pertsonaia bakarra, Brett Ashley, tartean ageriko dela ere gehitu du: «Jendea, alkohola, festa... eromen horretan badaude etenaldiak ere, bakea, natura, lasaitasuna. Eta emakumea, ez dut uste kasualitatez, ez da egongo ez mendian, ez Donostian».

## Errealismoaren dohaina

Lertxundik, bestalde, Hemingwayren «kazetari sena» izan du gogoan, hari esker irauli zuelakoa ordura arteko nobelagintza. «Kazetaritzaren elementu inportanteak berreskuratuzituen lehen liburuetatik, eta nabarmena

da hemen. Asko dago erreportajetik; mestizaje tankerako estilo bat erakusten du». Eguneroko bizimoduari «etekin literarioa» aterratzen asmatu izana ere txalotu



**Egun zaila egiten zaigu garai hartan jartzea. Baina liburu moderno baten kutsua gordetzen du [eleberriak]»**

**Koro Navarro**  
Itzultzailea

**«Biarritzetik Iruñera autoan doazelarik, gure herriaren paisaia guztiak ikusten dira, 'travelling' batean bezala»**

**Anjel Lertxundi**  
Idazlea eta hitzurrearen egilea

dio idazleak idazleari, hori delakoan «lan artistikoetan» nekezena: «Egunerokotasunean ezkututzen dena nabarmentzea da errealismoaren dohaina. Ez dira hemen erlazio asko esplizitatzen, keinuak dira ia denak, ederki argitzen zaizkigunak irakurketan».

Navaroren itzulpena etorritan, protagonista euskal irakurleari

oso hurbilekoa egingo zaiola ere adierazi du Lertxundik. Protagonista kuadrilla delako, «kuadrillaren figura soziala», haren hitzetan: «Kuadrilla ez da euskaldunon esklusiba, baina gurean segitzen du funtzionatzen beste leku batzuetan ez bezala, onerako eta txarrerako». Azpimarra jarri dio, hartara, liburuan datozen ahots askotariko elkarrizketei. «Gogoan duzue bi edo hiru pertsonaren arteko elkarrizketa asko dituen libururik? Nik ez. Oso zaila da hiru ahots baino gehiago ematea». Hemingwayk, ordea, bostseiren arteko jarduna ematen du, eta irakurlearentzat oharkabekoa den «mirarritzat» jo du hark. Hitanoa baliatu du solas horiek euskaraz jartzeko Navarrok, eta, bidenabar, Lertxundik azaldu du luze iraungo duela literaturan, ahokoan erabilera murriztuz badoa ere.

Ezagunak dira, Hemingwayk bezala, beste idazle handi askok Euskal Herrian egindako pasae-

rak, baina, Lertxundiren esanetan, ez dago inor euskal paisaiak estatubatuarrek bezala eraman dituenik hitzetara. «Biarritzetik Iruñera, berdetik harri kolorera, autoz doazelarik, gure herriaren paisaia guztiak ikusten dira, *travelling* batean bezala, irakurlea kontraturatu gabe *travelling* batean doala».

Literatura Unibertsala bildumaren parte diren aldetik, Aitziber Atorrasagasti Eusko Jaurlaritzako Kultura sustatzeko zuzendaria eta Itziar Diez de Ultzurrun EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkartereko lehendakaria ere izan dira lanaren aurkezpenean. Hemingwayrena bildumak nazioarteko literaturatik euskarari ekarri dion 179. izenburua dela oroitu dute, eta horretan segitzeko borondatea berretsi du Atorrasagastik –Navarrok aurrez hala egiteko eskaera zuzena egin ostean–. Aurten urrats bat aurrera egin dutela ere nabarmendu du: «Programa Hizkuntza Politika Sailerik Kultura Sailerara pasatu da, eta uste dut normalizazioarekin zerikusia duen pauso handi bat dela».